

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Argi dago, enpresa batek funtziona dezan, beharrezkoa dela kanpoko enpresekin aliantzak egitea. Gure elkarteak arrakasta izateko, hornitzaile batzuekin harremanetan jarri beharko gara gure kabuz lortu ezin ditugun baliabideak eskuratzeko. Horregatik, eginkizun hauek guztiak aurrera eramateko, beste enpresa edo erakundeen laguntzaz baliatuko gara. Beraz, atal honetan, zer nolako enpresekin eta zertarako jarriko garen kontaktuan azalduko dugu

Hasteko, oso garrantzitsua izango da Donostiako Udalarekin harremanetan jartzea. Proiektua matxan jartzeko funtsezkoa da hauen onarpena eta enpresa finantzatzea. Donostian kokatuta dagoenez, erraztasun gehiago izango ditugu haiengana iristeko. Donostiako udalakoei gure proiektua aukeztuko diegu, ezaugarri guztiak zehatz-mehatz azaltzen gure elkartea zertan datzan ulertzeko. Haiek, gure ideia baloratuko dute eta gure elkartea gizartearentzat onuragarria izango dela pentsatuko balute, elkartea onartuko ligukete, beraz enpresa aurrera eramateko urrats garrantzitsuena izango genuke. Gainera, Donostian lokal bat utziko digute zerbitzua eskeindu ahal izateko, eta lokalaren gastu guztiak (gasa, ura eta elektrizitatea) ordainduko dizkigute. Ondoren, beste hornitzaileekin kontaktuan jartzen hasiko ginasteke.



Horrez gain, enpresa pribatuekin harremanetan jarriko gara; izan ere, Donostiako udalaren laguntza ez da nahikoa izango gure kostuak ordaintzeko. Hauek diru kopuru bat eskainiko digute laguntza moduan, eta enpresa pribatuentzat gurekin elkarlanean aritzea oso onuragarria izango da. Urtero, enpresa ezberdinekin kontaktatuko dugu, baina hasierakoak hauek izango dira: Irizar, La Caixa, Inditex, Mapfre, Bankia eta Fundacion MRW.


Gure lokala erakargarria izatea gure helburuetako bat da. Baita ere, ondo sentiarazten duen tokia izatea nahi dugu, horretarako, disenatzaile bat kontratatuko dugu, hain zuzen ere, Osuna Diseño de Interiores, Donostian kokatuta dagoena. Paretak kolore zorionsuetakoak izango dira, hau da, kolore argieztuak, esate baterako, urdina, horia... denak ondo sentiarazteko eta ez sentitzeko "iluntasuna". Honen ondorioz, gure zerbitzua erabiliko duten pertsonak ondo sentituko dira, leku erakargarri batean egongo direlako. Lehen esan dugun bezala, diseinatziale baten zerbitzua jasoko dugu eta honek tarifa batzuk edukiko ditu baina hauek kostuetan azalduko ditugu.



Aurrekoan aipatu bezala, lokalaren barrualdea diseinatzeko norbaitekin kontaktatu beharra izan dugu. Hortik abiatuta, aukera paregabea iruditu zaigu gure kamisetak diseinatuko dituen zerbitzuarekin hitz egitea. Bertan lan egiten duen ezagun batekin egon eta gero, gure kamisetaren logoa diseinatuko zuela jakinarazi zigun.

Altzariak erosteko, IKEA enpresa egokiena dela uste dugu. Hasteko altzari mota honek eskaintzen duen sinpletasuna izugarria da, ziur gaude ez dagoela hain azkar muntatzera ahalbidetzen duen beste enpresarik, gainera garraiatzeko espazio gutxi okupatzen dute eta prezio aldetik ere ez dira garestiak. Materiala onena ez izan arren egonkortasuna eta iraupena ematen dute. Euskal Herrian, Bilbon zehazki, denda dago, beraz hauek erosterakoan ez da arazorik izango.



 Materialari dagokionez, Decathlon, funtsezko enpresa izango da gure lokalean. Arlo berdineko beste enprekin alderatu ondoren, ikusi izan dugu enpresa honek materialarekiko ditugun behar guztiak asetzen dituela. Honek ahalbidetzen gaitu gure erabiltzaileekin egin nahi ditugun jarduera guztiak bete ahal izatea, beharrezko materiala (baloiak, pilotak ...) eskuratzeko aukera ematen digutelako. Gainera, gugandik oso gertu dago, beraz asko errazten digu materiala erosterako orduan eta hau lokalera eramaterakoan.

Azkenik, aipatu beharrekoa da webgunean erabiliko dugun HOSTa ICANN enpresaren bidez lortuko dugula. Zerbitzu hau gure webgunea sortzeko erabiliko dugu.